

STEILASBERRI honetan gaurko Mahai Sektorearen berri emango dizuegu.**EPE**

- Programazioak 2021ean entregatu beharko dira, oposizio prozesuaren parte dira eta.
- Printzipioz EPEa bere osotasunean *izoztu* egiten da, aipatzen den legedia kontuan hartuta.
- Hezkuntza Departamentuak ikertuko du EPE deialdi berri bat egiteko aukera momentu honetan deitu ez diren espezialitate batzuekin.

ORDEZKAPENAK

- Departamentuak adierazi egin du ikastetxeek ordezkapen gutxi eskatu dituztela eta hauek bete egin direla (20). STEILASek exigitzen du behar guztiak ordezkatzeara.
- Sindikatuek modu negatiboan baloratu dute bajek eta baimenek eragindako taldeen birbanaketa momentu hontan irakasleek pairatzen duten gainkarga dela eta. Konfinamendua luzatuz gero bide berriak bilatuko dira.

LHko PRAKTIKAK

- Lehenetsiko da ikasleek titulaztea.
- Osotasunean egin nahi dituen ikaslegoarentzat epe berri bat proposatzea ikertuko du Hezkuntza Departamentuak.

USE

- Hezkuntza Departamentuak ez du oraindik landutako blokeen inguruko inkesta bidali. Datorren astean egingo dute.

JUBILAZIOAK.


- Arazoak badituzu Kontrol Administratiboko atalarekin kontaktatu.
- Dokumentazioa Erregistro Orokor Elektronikoaren bitartez entregatu behar da. .

0-3 ZIKLOA

- Hezkuntza Departamentuak Udalekin adostutako finantziarioa mantenduko duela adierazi du.

ARRAKALA DIGITALA ETA MATERIALA

- Batxilergo 2. mailan behatutako zailtasunak konpontzea lehenetsi da, eta pixkanaka gainontzeko etapetan.
- Hainbat udalerritan paperezko materiala banatzeko orduan arazoak egon dira.

PUBLIKOA DEFENDATU

Ez erabili pandemia Hezkuntzan murrizketak egiteko